

## **EAJ/PNV eta PSE-EE taldeek aurkezten duten mozioa, bazterketari erantzuteko zerbitzuaren kudeaketaren eskumenari buruz**

Zarauzko Udalak, 2011n, gaueko arreta eskaintzen zuen zentro bat jarri zuen bazterketa larrian zeuden pertsonentzat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jabetzako eraikin batean.

Igeraingo aterpetxearen eta Monte Albertiako Ile-apainketa eta Estetikako Lanbide Heziketako zentroaren ondoan dago eraikin hori. Hasiera batean, Caritas arduratu zen zentroaren kudeaketaz, boluntarioekin; baina, 2014an, Rais enpresari esleitu zitzaion, eta berak kudeatu du 2018 arte.

Urtetik urtera, Aldundiaren Gazteria Departamentuak baimenak berritu ditu, eraikin horren erabilera lagatzeko, baina Gazteria Departamentuko teknikariek beti ohartarazi dute kokapen egokiagoa bilatu beharra zegoela, gatazkak sortzen baitziren halako leku txiki batean hain erabilera desberdinak egoteak. Arrazoi hori bera dela-eta, Aldundiak ukatu egin digu eguneko eta gaueko arreta zerbitzu integral bat urte osoan zehar emateko baimena, nahiz eta Gizarte Zerbitzuetako Departamentuak eskaera hori egin zuen. Zerbitzu hori agintaldi honetako helburuetako bat da, urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera (Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa) eta abenduaren 5eko 12/2008 Legean oinarrituta (Gizarte Zerbitzuei buruzkoa).

Bestalde, GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN MAPAK (2015-2018) esaten du beharrezkoa dela Gizarte Zerbitzuen antolaketa egoki bat egitea eta lurraldean zabaltzea; eta bazterketa egoeran dauden pertsonentzako zentroi buruz adierazten du horren eskumena eskualdearena dela.

Nahiz eta Zarauzko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako Departamentua arduratu den orain arte gizarte bazterketan zeuden pertsonen zentroa kudeatzeaz, eta kontuan hartuta 2018an beharrezkoa zela zerbitzuaren kontratazioaren pleguak berritzea, Departamentuak eta Udal honek uste dute kudeaketa hori Udal Elkarteei eskualdatu behar zaiela, Gizarte Mapan hitzartutakoa betetzeko.

Azterketa sakonago bat egin ondoren, ordea, uste dugu berez egokiena izango litzatekeela Foru Aldundiak kudeaketa zuzenean bere gain hartzea, gure gizartean egiturazkoa den bazterketaren fenomenoaren konplexutasunagatik.

Horiek horrela, udal gobernua osatzen duten EAJ/PNV eta PSE-EE alderdiek ondorengo mozioa aurkezten diote Udalbatzari.

### **MOZIOA**

1. Zarauzko Udalak Urola Kosta Udal Elkarteari eta Iraurgiko eskualdea osatzen duten udalei eskatzen die bere gain har dezatela bazterketan dauden pertsonentzako urte osoko eguneko eta gaueko zentro baten kudeaketa, Gizarte Zerbitzuen Mapan jartzen duen bezala.
2. Zarauzko Udalak konpromisoa hartzen du Gizarte Mapa guztiz garatzeko lanean jarraitzeko.
3. Zarauzko Udalak hitz ematen du, eskualdeko gainerako udalekin batera, lan egingo duela horrelako zentro bat jartzeko. Zentroa Urola Kosta eta Iraurgi eskualdeek kudeatuko lukete, bertako udal ordezkariak elkarrekin erabakitako moduan.
4. Aurreko puntuetan adierazitakoari utzi gabe, Zarauzko Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari

eskatzen dio azter dezala gizarte bazterketan dauden pertsonen arloko eskumenak zuzenean bere gain hartzeko aukera.

Zarautzen, 2019ko urtarrilaren 28an

Gloria Vázquez Herranz  
PSE-EE udal taldearen bozeramailea

Jesus Arana  
EAJ/PNV udal taldearen bozeramailea